# PROGRAMAZIO LABURRA

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| IKATETXEAREN IZENA | Olabide | | | | | | | | | | 2017-18 | |
| ARLOA / GAIA | Historia garaikidea | | | | | | | DATA | | | | |
| ETAPA - MAILA | 1 DBH | | 2 DBH | | 3 DBH | | 4 DBH | | 1 BATX. | X | 2 BATX. | |

| 1 | HELBURUAK: GUTXIENGO GAITASUN MODUAN DEFINITUAK |
|---|---|

## BATXILERGO 1. MAILAKO MUNDU GARAIKIDEAREN HISTORIAREN HELBURU OROKORRAK

Batxilergoaren helburu orokorrak kontuan hartuta, Mundu Garaikideko Historiaren helburu orokorrek ezagutzeko, komunikatzeko, norberaren oreka lortzeko eta gizarteratzeko gaitasunak garatzen lagundu behar dute:

- Garaian eta tokian ondo kokatuz, mundu garaikideko historiaren gertakariak eta jazoera nabarmenenak azaldu eta aztertzea, historian zehar izan zuten garrantzia eta gaur egun duten eragina baloratuz.
- Oraintsuko historia osatzen duten prozesu ekonomiko, demografiko, politiko eta kultural garrantzitsuenak ulertu eta baloratu, ezaugarri adierazgarrienak azpimarratuz eta ezaugarri horiek faktore eragileak aztertuz.
- Gaur egungo egoera eta arazoen azterketa errazteko oinarrizkoa den garai bateko munduaren ikuskera zabala lortu, tokian tokiko ikuspuntuak eta ikuskera eurozentristak gaindituz. Aintzat hartu aurrekari historikoak eta gertakarien arteko erlazioak.
- Historiografiarako sortutako terminologia eta oinarrizko kontzeptuak ulertu eta egoki erabili; informazio historikoa argi eta garbi, ondo antolatuta eta zientziaren zorroztasunez aztertu, interpretatu, azaldu eta adierazteko.
- Metodo historikoaren estrategia eta prozedura bereizgarriak erabili, era askotako informazioaren azterketa, egiaztapena eta bilketa ikertu eta laburtzeko, iturrien eta ikerlariaren lana zorroztasun kritikoarekin baloratuz, banan-banan zein taldeka.
- Sentimena eta erantzukizuna garatu gizarteko arazoen jatorri eta eragileak aztertzerakoan, batez ere ondorengoak: giza eskubideak, bai gizabanakoarenak bai eta taldearenak; bake, ingurugiro eta osasunaren eta desberdintasunen defentsa, zentzu guztietan. Jarrera demokratiko, tolerante eta irekiak hartu, bakoitzak bere irizpidea izateko eta adimena zorrotz erabiltzeko ohitura hartuz.
- Norberak gizarteari buruz dituen ideiak argudiatu eta modu kritikoan berrikusi informazio berriak kontuan hartuz, estereotipoak eta aurreiritziak zuzenduz eta azterketa historikoa etengabe aldatzen eta berritzen ari den prozesua dela ulertuz.
- Jarrera kritikoa garatu giza talde ezberdinen eta pertsonen jokabideen azpian dauden balioen aurrean, aitortutako printzipioen eta jokabideen arteko erlazioa aztertuz.

| 2 | EDUKIEN DENBORALIZAZIOA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ORD. | **1, ebaluazioa** | ORD. | **2. ebaluazioa** | ORD. | **3. ebaluazioa** |
| 8 | | 8 | Bigarren industri iraultza eta imperialismo garaia | 8 | Mendebaldeko mundua XX.mendeko bigarren erdian |
| | Erregimen Zaharraren krisia | | | | |
| 8 | Iraultza burgesak eta mugimendu nazionalak | 7 | Lehen mundu gerra | 4 | Gizartea eta kultura XX. Mendean |
| 8 | Industri iraultza eta industrializazioa | 6 | Errusiako iraultza.SESB | 8 | Asia : esnatzen ari den kontinentea |
| 8 | Aldaketak XX. Mendeko Europako gizartean | | Demokraziaren gailurra eta krisia (1919-1939) | 8 | Islamdar mundua |
| 8 | Langile mugimendua eta ideología antiburgesak | 10 | Hogeita hamarreko hamarkadako krisia | 6 | Afrika beltza |
| | | 9 | Faxismoak eta Bigarren Mundu Gerra | 6 | Amerika Latinoa: menpekotasunaren arrazoiak. |

| 3 | METODOLOGIA |
|---|---|

Deduktiboa/Induktiboa.
Irakasleak azalpen orokorrak emango ditu. Ikasleek osatu beharko dituzte gaiak ikerketa txikiak eta klasean egindako eztabaiden bidez.
Momentuko gertaerak aprobetxatuko dira beste garaiko gertaerekin alderatzeko.

| 4 | BAILABIDEAK |
|---|---|
| **TESTU LIBURUA:** | **EDITORIALA:** |
| **Mundu Garaikidearen Historia**<br>**Material propioa** | **Zubia Santillana** |

| 5 | EBALUAZIO SISTEMA |
|---|---|
| **KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK** | |
| 1.Mundu garaidearen historiako gertaera nahiz prozesu garrantzitsuenak ezagutzea, aldaketa handiak eragiten dituzten faktoreak aztertzea eta horien aldatze-nahiz iraute-erritmo desberdinen arteko eralzioak azltzea, historia etengabe berregiten den prozesutzat ulertu ahal izateko. | 8.Industria-iraultzaren zergatiak eta politikan, gizartean nahiz ekonomian izandako ondorioak azaltzea, batik bat langileen mugimenduaren sorreran eta inperialismoaren hedapenean izandako ondorioak. |
| 2.Mundu garaikideari buruzko informazioa lortzea, era batako eta besteko iturrietan oinarrituz (testu idatziak, argazkiak, marrazki satirikoak, grafikoak,literarioak zein musícala,etab). | 9.XX.mendeko lehenengo erdian herrien arteko erlazioakl finkatzen dituzten arauak eta interesak identifikatzea, gerrak sortzen dituzten zergati anitzak, horien ondorioak eta nazioarteko erlazioak egituratzeko mekanismo nagusiak aztertuz eta horien balorazio kritikoa eginez. |
| 3.Mundu garaikidearen historiako gertaera eta prozesu garrantzitsuenak kronologikoki kokatzea, eta horiek pertsonaia jakinekin duten lotura aztertzea, ekintza indibidualaren eta kolektiboaren arteko eralzioa arakatuz, iraupen desberdineko egiturak eta aladaketako nahiz iraunkortasuneko fenomenoak identifikatzea. | 10.Sistema parlamentarioen antolaketa oinarritzen duten printzipioak identifikatzea eta aztertzea; halaber, horien garapenean eragina izan duten faktoreak eta egoera historiko jakinetan, erregimen demokratikoa hondatu nahiz erregimen diktatorialak ezarri dituzten faktoreak aztertze. |

| | |
|---|---|
| 4.Mundu garaikideko geratera historikoak kasuan kasuko eremeu geografikoan kokatzea eta aurkitzea.<br><br>5.Mundu garaikidearen oinarrizko kontzeptu historikoen esangura ulertzea eta historiografikoak onarturiko terminología ondo aplikatzea, historiako lanen emaitzak aztertzean, azaltzean eta janirazten.<br><br>6.Mundu garaikideko arazoak arakatzeko edo ikertzeko lan errazak banaka edo taldeka planifikatzea eta garatzea; ikerketa zientifikoaren jarraibideak erabiliz, informazioa biltzea, hipotesiak planteatzea, iturriak aztertzea nahiz interpretatzea eta laburpenak zein ondorioak idaztea.<br>7.Erregimen Zaharreko krisiak, iraultza burgesak eta nazionalismoak eragin zituzten gertaera eta aldaketa-prozesu nagusiak aztertzea. | 11.Mundu ekonomía garaikideak izandako heapenen eta atzeraldien ezaugarriak identifikatzea, eta horiek gizarte harremanetan, bizimoduetan, kontsumoan, laneaneta nazioarteko politiketan izandako eraginak zehaztea.<br>12.. mendeko bigarren erdian deskolonizazio-prozesuren bat izan duen herriren baten bilakaera historikoa laburbiltzea, bertan izandako arazo kultural, ekonomiko, sozial eta político nagusiak identifikatuz eta arazo horiek esperientzia kolonialarekin nahiz menpekotasun neokolonialekin izan ditzaketen loturak ezarriz.<br>13.Europar Batasunaren oraingo egitura eta interpretazio-prozesuan eman beharreko aurrepausoak aztertzea, horrek mundu garaikidean duen esangura eta presentzia baloratuz. |

| KALIFIKAZIOEN BALIO PORTZENTUALA | KONTZEPTUAK | %50 | PROZEDURAK | %50 | JARRERAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|

| 6 | BERRESKURAPEN SISTEMA |
|---|---|

Errekuperaketa azterketa baten bidez egingo da. Bertan suspenditutako ebaluazioko materia osoa , testuak irudiak eta landuakotako prozedura guztiak agertuko dira. Suspenditzen bada, Nahikotasun azterketarako geldituko da materia guzti hori. Nahikotasunak suspendituz gero, materia osoa geldituko da Azken azterketarako.Kurtsoa suspendituta gelditzen bada, hurrengoko kurtsoko irailean egingo da Mundu Garaikidearen Historiaren azterketa.